

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea



centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

Giza eskubideen kultura bultzatzeko 2010eko UNESCO/ BILBAO 2. Sariaren ospakizune dela eta, Bilboko Udalak eta UNESCO Etxeak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ondorengo edizioa aurkezten dute, hitzkuntza arruntera egokituta dagoena, gazteen artean bake kultura bultzatzeko helburuarekin.

Bilbao, 2010eko abenduak 10

1. artikulua

Jaiotzen direnean, haurrak askeak dira, eta guztiak tratatu behar dira ondo. Guztiak dute arrazoia eta kontzientzia, eta adiskidetsu izan behar dute elkarrekin.

2. artikulua

Pertsona guztiak eskubide hauek guztiak erabil ditzakete, nahiz eta:

beste sexu batekoak izan / azala beste kolore batekoa izan
beste hizkuntza batean mintzatu / beste nolabait pentsatu
beste erlijio batean sinetsi / ondasun gutxi edo asko izan
beste gizarte-talde batean jaiotakoak izan
beste herrialde batekoak izan

Bizi diren herrialdea burujabea izatea ala ez ere berdin da.

3. artikulua

Bizitzeko eskubidea duzu, eta askatasunean eta segurtasunean bizitzekoa.

4. artikulua

Inork ez du zu esklabo bihurtzeko eskubidea, eta zuk ere ezin duzu inor bihurtu esklabo.

5. artikulua

Inork ez du zu torturatzeko eskubidea.

6. artikulua

Legediak berdin-berdin babestu behar zaitu, nonahi zaudela ere, eta beste bezala tratatu behar zaitu.

7. artikulua

Legedia berdina da guztiontzat, eta era berean aplikatu behar zaie guztiei.

8. artikulua

Zure herrialdeak egokitu dizkizun eskubideak errespetatzen ez badira, auzitegietara jotzeko aukera izan behar duzu.

9. artikulua

Inork ez du eskubiderik zu kartzelatzeko, kartzelan edukitzeko edo zure herrialdetik botatzeko, bidegabe edo baliozko arrazoirik gabe baldin bada.

10. artikulua

Epaitu egin behar bazaituzte, epaiketa jendaurrean egin behar da, eta epaitzen zaituzten pertsonak ezin dute utzi beste batzuek beraiengan eraginik izan dezaten.

11. artikulua

Errugabetzat hartu behar zaituzte errudun zarela frogatu arte, eta, delitu bat leporatzen bazaizu, zure burua defendatzeko eskubidea izan behar duzu beti. Inork ez du eskubiderik egin ez duzun zerbait dela-eta zu kondenatzeko eta zigortzeko.

12. artikulua

Inor, baliozko arrazoirik gabe, zure izen ona orbantzen, zure etxean sartzen, zure gutunak zabaltzen edo zu eta zure senitartekoak gogaitzen saiatzen bada, babes eskatzeko eskubidea duzu.

13. artikulua

Zure herrialdean batetik bestera ibiltzeko eskubidea duzu. Zure herrialdetik beste batera joateko eskubidea ere baduzu, eta zure herrialdera itzultzekoa, nahi izanez gero.

14. artikulua

Inork kalte egiten badizu, beste herrialde batera joan eta bertan babes zaitzaten eskatzeko eskubidea duzu, baina, inor hil baduzu edo zuk zeuk eskubide hauek guztiak errespetatzen ez badituzu, eskubide hori galtzen duzu.

15. artikulua

Zure herrialdeko kide izateko eskubidea duzu, eta, baliozko arrazoirik ez badu, inork ezin dizu eragotzi, nahi izanez gero, beste herrialde bateko kide izatea.

16. artikulua

Legediak xedatzen duen adinean egon bezain laster, ezkontzeko eta familia sortzeko eskubidea duzu, zure azalaren kolorea, zure jatorrizko herrialdea edo zure erlijioa dena delakoa izanda ere. Gizonek eta emakumeek eskubide berberak dituzte ezkontuta daudenean, baita banantzen direnean ere. Inork ezin du beste inor ezkontzera behartu, eta zure herrialdeko gobernuak zure familia osoa babestu behar du.

17. artikulua

Zeure ondasunak izateko eskubidea duzu, eta inork ezin dizkizu kendu, baliozko arrazoirik ez badu.

18. artikulua

Zure erlijioa libreki agertzeko eskubidea duzu, erlijioz aldatzekoa eta zure erlijioa bakarka edo taldeka praktikatzekoa.

19. artikulua

Nahi duzuna pentsatzeko eta esateko eskubidea duzu, eta inork ezin dizu eragotzi.

Zure ideiak beste edozein herrialdetako pertsonekin trukatzeko eskubidea ere baduzu.

20. artikulua

Bakezko bilerak antolatzeke eta bakezko bileretan parte hartzeko eskubidea duzu. Inor ezin da behartu talde bateko kide izatera.

21. artikulua

Zure herrialdeko politikagintzan parte hartzeko eskubidea duzu, dela gobernuko kide izanik, dela zure iritzi bereko politikariak hautatuz.

Gobernuak aldian-aldian hautatu behar dira, bozketa sekretuaren bidez. Boto bat izateko eskubidea duzu, eta boto guztiek balio bera izan behar dute. Halaber, beste edonork bezala, administrazio publikoan lan egiteko eskubidea duzu.

22. artikulua

Bizi zaren gizarteak lagundu egin behar dizu zure burua garatzen, bai eta zuk eta zure herrialdeko gizonak eta emakumeak eskura dituzuen abantaila guztiak (kulturaren, lanaren eta gizarte-ongizatearen alorrekoak) ahal bezainbat aprobetxatzen ere.

23. artikulua

Lan egiteko, zure lana libreki aukeratzeko, eta bizitzeko eta zure familia mantentzeko adinako soldata irabazteko eskubidea duzu. Gizonak eta emakumeak lan bera egiten badute, zenbateko bera irabazi behar dute. Pertsona guztiek elkartzeko eskubidea dute, beren interesak babesteko.

24. artikulua

Lanaldia ezin da luzeegia izan, pertsona guztiek baitute eskubidea atsedean hartzeko eta ordainpeko oporrak izateko.

25. artikulua

Behar duzuna izateko eskubidea duzu, zuk eta zure familiak gaixotasunik izan ez dezazuen, gose izan ez zaitezten, jantziak eta etxebizitza izan ditzazuen, eta laguntza jaso dezazuen, baldin eta lanik ez baduzue, gaixo bazaude, zaharra bazara, alarguna bazara, edo konpondu ezin duzun arazo bat dela-eta bizibidea atera ezin baduzu.

Seme edo alabaren bat ekarriko duten amek eta seme edo alaba horrek aparteko laguntza izan behar dute, eta haur guztiek eskubide berberak izan behar dituzte, ama ezkondua edo ezkondu gabe egon.

26. artikulua

Eskolara joateko eskubidea eta betebeharra duzu, eta lehen irakaskuntzak doakoa izan behar du. Lanbide bat ikasteko edo ikasketak zuk nahi duzun bitartean jarraitzeko eskubidea duzu, eta zure gaitasun guztiak garatzeko aukera izan behar duzu eskolan; gainera, besterekin ondo moldatzen irakatsi behar dizute, besteren jatorrizko arraza, erlijioa edo herrialdea dena delakoa izanda ere. Gurasoek eskolan nola eta zer irakatsi behar dizuten aukeratzeko eskubidea dute.

27. artikulua

Zure komunitateko arteetan eta zientzietan parte hartzeko eta haien abantailez gozatzeko eskubidea duzu. Artista, idazlea edo zientzialaria bazara, zure obrek babestuta egon behar dute, eta haietatik etekina ateratzeko aukera izan behar duzu.

28. artikulua

Zure eskubideak errespetatuko badira, babestuko dituen ordena izan behar da, eta ordena horrek tokikoa eta mundukoa izan behar du.

29. artikulua

Betebeharrak dituzu komunitatearekiko, haren baitan bakarrik gara daitekeelako ondo zure nortasuna. Legediak giza eskubideak babestu behar ditu, eta besteak errespetatzeko eta errespetatua izateko bide eman behar du.

30. artikulua

Munduko inongo elkartek edo gizakik ezin dizkio kendu inori irakurri berri dituzun eskubideak.

